MUNGIA UDALA

MUNGIAKO UDALAREN ERABILERA PLANA

2018-2022

Aurkibidea

1.- Erabilera planaren testuingurua eta edukiak 3

2.- Erakundearen gaur egungo egoera 4

3.- 2022ra arteko gida-lerro nagusiak eta helburuak 7

4.- Helburu horiek lortzeko aplikatuko diren neurriak (ikusi kudeaketa plana, i. eranskina) 11

5.- Hizkuntza irizpideak 13

I. eranskina: kudeaketa plana

II. eranskina: lanpostu zerrenda

III. eranskina: lanpostuen izaera eta jendaurreko lanpostuen mapa

IV. eranskina: itzulpenak

1.- ERABILERA PLANAREN TESTUINGURUA ETA EDUKIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuak ezartzen duenaren arabera:

"EAEn dauden herri administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri aginteek, nork bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza[1] modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte".

VI. Plangintzaldiko bost urteotan helburu horretarantz aurrerapausoak egiteko, hau da, euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza bilakatzeko asmoz, Mungiako Udalak 2018-2022 bitartean garatuko duen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana diseinatu du. Aipatutako dekretuak honela ezartzen du plana bete behar hori "entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du" (4. artikulua), eta "bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira" (5. art.). 2018-2022ko bost urtealdirako planak aurten (2018an) onartu behar dira, indarrean diren lege-arauei jarraituta diseinatu, onartu eta aplikatuta.

86/1997 Dekretuaren 18. atalean ezarritakoari jarraituta, honakoak dira Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak izan beharreko edukiak:

a) Erakundearen gaur egungo hizkuntza egoera, besteak beste honakook: lanpostuen zerrendan hizkuntza eskakizunen gainean jasotakoa, derrigortasun indizea, euskararen erabilerari buruzko argibideak eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren xedapenetara egokitzeko hartu eta indarrean dauden neurriak.

   Hala dagokionean, hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten aldaketak, eta derrigortasun indize berrira egokitzeko hartu asmo diren neurriak, halakoen beharra baldin bada.

b) Euskara zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izateko neurriak, besteak beste kontuan hartuz apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren hirugarren kapituluan xedaturikoa eta administrazio bakoitzak VI. Plangintzaldirako jarritako helburuak.

c) Euskara lan-hizkuntza gisa erabilia izango den funtzioen zehaztapena, lanpostuz lanpostu.

d) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak entitatearen barne nahiz kanpo jarduerarako esparru guztietan.

[1] Zerbitzu-hizkuntza: administratuarekin ahozko zein idatzizko harremanak izaten direnean erabiltzen den hizkuntza.
Lan-hizkuntza: lanpostuari dagozkion zereginak betetzerakoan administratuarekin harremanik izan gabe ere erabiltzen den hizkuntza.

e) Kontratazio administratiborako aurreikusitako neurriak.

Beraz, eduki horietan oinarrituta, Planaren egiteko nagusia –orain arte egindako bideari jarraiki, hau da, ezagupena ahaztu barik– euskararen erabilera areagotzea izango da. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu, euskara zerbitzu-hizkuntza gisa erabiliz eta, aldi berean, hizkuntza eskubideak eraginkortasunez bermatzearekin batera euskararen erabilera areagotu euskara lan-hizkuntza gisa ere erabiliz: horixe da datozen urteetarako erronka. Ondorioz, euskara gaitasuna egiaztaturik duten herri-langileengan jarriko da lan-hizkuntzaren plangintzarako begirada nagusia.

2.- ERAKUNDEAREN GAUR EGUNGO EGOERA

2.1.- 2017an Eusko Jaurlaritzak V. Plangintzaren amaierako ebaluazioa egiteko sortu duen tresna (inkesta eta programa informatikoa) erabili dira udalean euskararen erabilera zein den neurtzeko.

Erabilera aitortuan oinarritzen den tresna hori elikatzeko, iturri nagusi bi erabili dira: batetik, langileen iritzia, eta bestetik, Euskera Saileko teknikariarena.

Maiatzeko lehenengo hamabostaldian banatu zitzaien inkesta langile guztiei eta hurrengo astean batu ziren emaitzak. Guztira, 103 behargini banatu zitzaien eta 88k erantzun zuten. Beraz, lagin egokia batu zen ikuspegi orokor fidagarria izateko, baita sailkakoa ere; beti ere kontuan izanda erabilera aitortuan oinarritutako datuak direla.

Euskera Sailak, berriz, 2017ko urrian bete zituen datuak.

2.2.- Hona hemen inkestaren emaitzak arloka:

Erabilera	EUSKARAZ %	ELEBITAN %
ZERBITZU-HIZKUNTZA		
ERAKUNDEAREN IRUDIA		
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak		
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	20	80
Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak		
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak	40	31
Jendaurreko ekitaldiak	40	60
Herritarrari begira antolatutako ikastaro (puntualak) eta jarduerak	30	50
Ingurune digitala		
Webgune eta sare sozialen edukia	55	45

HERRITARREKIKO HARREMANAK		
Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.		
Idatzizko harremanak	12	68
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	43	46
Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.		
Harrera	83	0
Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	53	0
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	86	0
LAN-HIZKUNTZA		
BARNE HARREMANAK		
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia		
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	25	0
Barne harremanak idatziz		
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	0	0
Lan-bileretako idatziak	46	19
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	33	22
Barne harremanak ahoz		
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	53	
Erakundearen barruko telefonozko harremanak	54	
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	54	
Baliabide informatikoak		
Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua	10	0
Euskarazko bertsioen erabilera	17	0
PERTSONEN KUDEAKETA		
Pertsonen kudeaketa		
Pertsonen kudeaketa	60	0
Laneko prestakuntza		
Laneko prestakuntza	28	0
Ikastaroen kudeaketa	26	0
KANPO HARREMANAK		
Administrazioa		
Administrazioekiko idatzizko harremanak	10	75
Administrazioekiko ahozko harremanak	65	
Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.		

Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	11	37
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	47	
Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.		
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	20	50
Beste entitateekiko ahozko harremanak	70	
KUDEAKETA SISTEMA		
ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea		
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-%100)	20	
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-100%)	25	
Euskara sortze hizkuntza (0-100%)	29	
Dokumentuen estandarizazioa (0-100%)	50	
HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea		
HOEIen betetze maila (0-100%)	60	
PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea		
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	77	
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	76	
Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko	69	
Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	20	

2.3.- Ondorioak:

2.3.1.- Zerbitzu-hizkuntza:

a) Irudia: Arlo honetan ahalegin berezia egin da errotulazio mailan eta ingurune digitalean sortu diren tresnetan, hala ere, oraindik publizitate arloan badago zeregina.
b) Herritarrekiko harremanak: Neurri handi batean bermatuta dago, eta jendaurreko zerbitzu nagusietan ehuneko ehunean gaina, baina oraindik badira zirrikitu batzuk eta horiei aurre egin beharra dago. Nabarmentzekoa da idatzizko erabilerak izandako igoera, hala ere, oraindik badago zer hobetu.

2.3.2.- Lan-hizkuntza:

a) Barne harremanak: Inkesta bera lehenago eginda egon ez arren, aurreko datu-bilketako datuekin erkatzen badugu, hementxe ikusten da gorakadarik nabarmenena. Datuek hobetzeko aukera ematen badute ere, argi dago progresioa

egokia dela eta azken urteetan argi nabaritu dutela beharginek eurek ere (ikusi langileen iritziak 3. Eranskina).

Arlo horretan bertan, ordea, Baliabide informatikoei dagokien ataleko emaitza oso eskasa da.

b) Pertsonen kudeaketa: Arlo honetan batez ere laneko prestakuntzari erreparatu behar diogu, eta azken aldian gorakadatxo bat izan bada ere, datu horiek oraindik asko hobetu beharrekoak dira.

c) Kanpo-harremanak: Ahozko harremanetan, orokorrean, emaitzak ez dira txarrak. Idatzizkoetan, ostera, erakunde pribatuekiko harremanetan oraindik bidea jorratu beharra dago.

d) * Kontratazio publikoa: Datu hori inkestaren bidez jaso ez den arren, esan beharra dago azken urteetan aldaketarik handienetakoa jasan duen arloa dela eta Udalak nahiko sistematizatuta daukala bere funtzionamendua (hizkuntza irizpideei dagokienean).

e) Kudeaketa sistema: Oro har, planarekiko jarrera positiboa bai baina ezagupen eskasa nabaritzen da. Sortze-hizkuntzari dagokionez, berriz, oraindik euskararen erabilera oso eskas dabil.

f) Eta amaitzeko, Lanpostu-zerrendak, hizkuntza eskakizunei eta derrigortasun datei dagokienean, ez du aldaketa nabarmenik izan azken plangintzaldian. Berriro aipatu behar da derrigortasun indizetik (%65,15) gora dabilela Udala (lanpostuen %100k dauka ezarrita derrigortasun data) eta dagoen ezagupen mailak euskaraz funtzionatzeko aukera ematen duela.

3.- 2022RA ARTEKO GIDA-LERRO NAGUSIAK ETA HELBURUAK

Langileen laguntzaz egindako inkestaren ondorioetatik abiatuko den plan honek lehentasun argi batzuk ezarriko ditu. Hona hemen lehentasunok:

3.1.- Zerbitzu-hizkuntza

a.- Orain arteko plan guztietan euskara "Zerbitzu-hizkuntza" modura lantzea izan da ardura nagusia, bai ahozko arretan eta bai idatzizkoan. Inkestak eta egunerokoaren azterketak erakutsitakoaren arabera, neurri handi batean lortu egin da helburu hori. Hala ere, ezinbestekoa da arlo horretan adi egotea eta udalarekiko harremanetan herritarrek dituzten hizkuntza eskubideak guztiz bermatzea, zirrikitu barik, euskararen erabileran Udala elementu aktiboa dela erakutsita.

b.- Idatzizkorako agiri-ereduen fitxategi zabala eta egokia landu beharko da, baita euskara sortze-hizkuntza bilakatzeko prestakuntza ere (ikusi pertsonen kudeaketaren gaineko atala).

3.2.- Lan-hizkuntza

Benetan elebiduna den administrazio bat izan nahi dugu, zerbitzu-hizkuntzatik harago joan beharra dago. Eta plan honek euskara benetan ere "Lan-hizkuntza" bihurtzeko pausuak egiteko zelaia eskaini behar du:

3.2.1.- Barne harremanetan:

a.- Langileen arteko harremanak: Azken urteetako bideari eutsi behar zaio. Izandako gorakada hori oinarritu da, batez ere, langileen kontratazioaren, irizpideak zorrotzago betearaztearen eta politikoen jarreran. Bide horretatik jarraitzeaz gain, inplikazioa handitzeko moduak jorratu behar dira: sensibilizazio-ekimenak (nortasun marka, harrotasun puntua…).

Idatzizkorako agiri-ereduen fitxategi zabala eta egokia landu beharko da, baita euskara sortze hizkuntza bilakatzeko prestakuntza ere.(ikusi pertsonen kudeaketaren gaineko atala 3.2.b).

b.- Baliabide informatikoak: Informatikaren bidez dator hemendik gutxira izango dugun Administrazio eredua. Beraz, atal horretan aparteko ahalegina egin beharko da. Batetik, baliabideak eurak (bereziak eta estandarrak) euskaraz ezarri beharko dira, eta bestetik, langileek baliabide horiek euskaraz erabiltzeko beharrezko duten trebakuntza eta formazioa jaso beharko dute.

3.2.2.- Pertsonen kudeaketan:
Langileen prestakuntza mailakatua landu beharko da:

a.- Hizkuntza-prestakuntza orokorra behar duten langileei erraztasunak emango zaizkie horretarako, hau da, erraztasun ekonomikoak eta ordutegiari lotutakoak.

b.- Hizkuntza-irizpideen atalean azaldutako moduan (ikusi 5.4.2.e puntua), Udal arduradunek eta langileek adostu egingo dute 2018ko abenduaren 31 baino lehen hori kudeatzeko sistema bat.

c.- Prestakuntza orokor hori lortu duten eta agiriak euskaraz sortzen dituzten edo sortuko dituzten langileei lan horretarako trebakuntza berezia emango zaie. Horretarako, Udal Euskaltegiaren laguntza beharko da. 2018ko abenduaren 31 baino lehen ezarriko da zer trebakuntza emango den, nori emango zaion eta zenbat ordu eskainiko diren.

3.2.3.- Kanpo harremanetan:
Atal horretan bereiztu egin behar dira erakunde mota bi:
a.- Erakunde publikoak: EAEko eta Nafarroako erakunde publikoekiko guztiz bermatu behar da euskararen erabilera, eta apurka-apurka eurekiko harremanak euskara hutsean bideratuko dira, ahal den neurrian behintzat.
b.- Erakunde pribatuak: Udalak euskararen erabileran proaktiboa izan behar du, hau da, euskarazko eskaria sustatu behar du, merkatua sortu. Alegia, erakunde pribatuekiko harremanetan euskara naturaltasunez erabiliko du apurka-apurka, ez bakarrik ahozko jardueran, baita idatzizkoan ere.
Kontratazio-irizpideetan egindako lanari eutsi eta lan hori zabaldu egin beharko da.

3.2.4.- Kudeaketa sisteman:
a.- Plana langileei modurik errazenean azaltzeko saioak egingo dira, eta parte hartzeko sistema eratuko da (batzorde misto bat gai jakin batzuk aztertzeko, kasurako, prestakuntza).

Horretaz gain, plan orokorretik harago, sail bakoitzarekin adostuko dira bai helburuak eta bai helburu horiek erdiesteko bideak eta ekintzak.

b.- Euskara sortze-hizkuntza bilakatzeko moduak landuko dira, batez ere, gorago aipatutako trebakuntza eta zuzenketa saioen bidez.

c.- Hizkuntza eskakizunei eta derrigortasun datei dagokienean, orain arteko bideari ekingo zaio, hau da, sortzen diren lanpostu guztiei ezarriko zaie derrigortasun data eta euren hizkuntza eskakizuna lanpostuaren funtzioen arabera erabakiko da, beti ere, lanpostu guztien arteko koherentziari eutsita. Oraingoz aldaketa bakarra dago aurreikusita, Astiunerako Udal Erakundeak Udalarekin bat egindakoen sortu den desoreka konpontzea, hau da, Kultura, Kirol eta Liburutegiko zuzendari lanpostuei 4.HEa ezartzea.

Horrenbestez holaxe gelditzen da datozen urteetarako helburu-taula:

	Gaur egun egoera		Aurreikusitako Helburua	
	EUSK.	ELEB.	EUSK.	ELEB.
ZERBITZU-HIZKUNTZA				
ERAKUNDEAREN IRUDIA				
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak				
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak	20	80	40	60
Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak				
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak	40	31	60	40

Jendaurreko ekitaldiak	40	60	60	40
Herritarrari begira antolatutako ikastaro (puntualak) eta jarduerak	30	50	50	50
Ingurune digitala				
Webgune eta sare sozialen edukia	55	45	70	30
HERRITARREKIKO HARREMANAK				
Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.				
Idatzizko harremanak	12	68	30	70
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	43	46	100	
Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.				
Harrera	83	0	100	
Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak	53	0	100	
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak	86	0	100	
LAN-HIZKUNTZA				
BARNE HARREMANAK				
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia				
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	25	0	40	
Barne harremanak idatziz				
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	0	0		
Lan-bileretako idatziak	46	19	45	35
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	33	22	45	25
Barne harremanak ahoz				
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	53		68	
Erakundearen barruko telefonozko harremanak	54		69	
Erakundearen barruko aurrez aurreko harremanak	54		69	
Baliabide informatikoak				
Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua	10	0	50	
Euskarazko bertsioen erabilera	17	0	30	
PERTSONEN KUDEAKETA				
Pertsonen kudeaketa				
Pertsonen kudeaketa	60	0	85	
Laneko prestakuntza				
Laneko prestakuntza	28	0	50	
Ikastaroen kudeaketa	26	0	35	
KANPO HARREMANAK				

Administrazioa				
Administrazioekiko idatzizko harremanak	10	75	35	65
Administrazioekiko ahozko harremanak	65		75	
Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.				
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	11	37	26	37
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	47		55	
Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.				
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	20	50	40	55
Beste entitateekiko ahozko harremanak	70		75	
KUDEAKETA SISTEMA				
ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea				
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-%100)	20		65	
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-100%)	25		65	
Euskara sortze hizkuntza (0-100%)	29		35	
Dokumentuen estandarizazioa (0-100%)	50		65	
HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea				
HOEIen betetze maila (0-100%)	60		75	
PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea				
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak	77		80	
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna	76		85	
Langileen eta erakunde-ordezkarien balorazioa erabilera planarekiko	69		70	
Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan	20		65	

Helburu horiek erakunde osoari ezarritakoak dira, hala ere, sail bakoitzarentzat –bere egoera eta ezaugarriak kontuan hartuta– taula propio bat osatu da. Beraz, sail bakoitzarekin adostu eta egokitu beharko da.

4.- HELBURU HORIEK LORTZEKO APLIKATUKO DIREN NEURRIAK

Aurreko atalean azaldutako helburu horiek lortzeko aplikatuko diren ekintza zehatzak **Kudeaketa Planean** agertzen dira **(I. Eranskina HIZKETA plataforman dago sartuta).** Bertan agertzen dira datozen lau urteetan gauzatuko diren ekintzak.

Lau urtera begirako plana izateak esan nahi du tartean aldaketa handiak izan daitezkeela erakundean eta, seguruenik, taula horretan aurreikusita dauden neurrietako batzuk moldatu edo egokitu beharra egongo dela.

Hala ere, helburuen plan estrategikoarekin gertatzen den lez, kudeaketa plan orokor hori sail bakoitzarekin adostu eta garatuko den kudeaketa planetara dago baldintzatuta. Kudeaketa plan horiek 2018ko abenduaren 31rako egon beharko dute onartuta.

4.1.- Atal elebidunak eta euskarazko atalak

86/1997ko dekretuaren 15. artikuluak ezartzen dauenez, Udalak atal elebidunak eta euskarazko atalak izendatu beharko ditu, udal bakoitzak bere ezaugarri linguistikoen arabera egin beharko du sailkapen hori. Baina, zer dira atal elebidunak eta euskarako atalak?

> "1.– Beren zereginak Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak.
>
> 2.– Beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak.
>
> Administrazio-atal elebidunak eta, hala badagokie, euskaraz dihardutenak izango dira euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatzeko oinarri eta euskarri. Ildo horretatik, esparru horiexek izango dira euskararen erabilera normalizatzeko plangintza-sistemaren muin eta ardatz nagusi, eurak baitira, euskal herri-administrazioekin euskaraz harremanak izateko eskubidea bermatuta egon dadin, herritarrek dituzten gutxieneko antolamendu-atalak.
>
> Administrazio-atal horietan, herri-administrazioetako bakoitzak mikroplanak eratzeko aukera izango du, jendaurreko zerbitzuak eskaini edo espedienteak tramitatzeko lanpostuak kontuan izanda eta lanpostu horien arteko harremanak eta erlazioak aintzat hartuta. Era horretara, ahalik eta modurik eraginkorrenean erantzun ahal izango zaio herritarren aldetik zerbitzua euskaraz jasotzeko dagoen eskariari."

Mungiako Udalari, hirugarren helburu mailakatukoa denez (derrigortasun indizea %45etik %70era bitartekoa), jendaurreko, gizarte arloko eta izaera orokorreko atal elebidunak jartzea dagokio.

Udalaren egoera ikusita, honako hauek dira aipatutako dekretu horrek atal elebidun izendatu ahal izateko ezarritako baldintzak (atalburuak eta atala osatzen duten lanpostuen %80ak dagoeneko egiaztatuta izatea dagokien hizkuntza eskakizuna) betetzen dituzten atalak:

- HAZ (Herritarrentzako Arreta Zerbitzua).
- Baliabide orokorren saila
- Kontuhartzailetza saila

- Gizarte Ekintza saila
- Hirigintza Plangintza eta Kudeaketa saila
- Musika Eskola
+
Euskaltegia
Euskera Saila
Liburutegia

Atal guzti horien egoera kontuan hartuta eta plan hau eraginkorra eta betegarria izan dadin, lehentasun batzuk jarri ditugu atal elebidunak izendatzeko:

1.- Harreman-mota: jendaurreko eta gizarte izaerako atalak lehenetsi dira.
2.- Hizkuntza-egoera: egoerarik onenean daudenak aukeratu dira.
3.- Arrakasta-maila: helburuak lortzetik hurren daudenak hautatu dira.

Horrenbestez, hona hemen izendapenak:

Atal elebidunak	**Euskarazko atalak**
HAZ (4 langile)	Euskara saila (2)
Musika Eskola (7)	Euskaltegia (3)
Gizarte Ekintza saila (1)	Liburutegia (3)
Baliabide orokorren saila (8)	
Kontuhartzailetza (5)	

Planean sartutako langileak guztira: 34 (+ Euskera Saila + Euskaltegia+ Liburutegia)

Dena den, sailkapen hau gorabehera, sail eta langile guztiak (salbuespenak salbuespen) sartuko dira planean, neurri batean ala bestean. Izan ere, aurreko puntuan adierazi denez, sail guztiekin adostuko dira mikroplanak.

5.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Ardatz nagusi bi izango dituzte irizpideok:

Batetik, euskara eta gaztelaniaren artean oraindik dagoen desoreka soziala kontuan hartuta, gutxituari emango zaio lehentasuna.

Bestetik, udalak eta bere langileak elementu aktiboak (eragileak) izango dira, ez pasibo hutsak (hartzaileak), euskararen normalizazioaren prozesu honetan.

Ardatz horietan oinarrituta, hauek dira hizkuntza irizpide nagusiak:

5.1.- Ahozko komunikazioa

5.1.1.- Kanporako lanean

a.- Herritarrekin

1.- Ahozko harreman guztietan (telefonozkoak zein aurrez aurrekoak) Udaleko langileek euskaraz egingo dute lehen hitza.

2.- Solaskideak euskaraz erantzuten badu, langileak euskaraz jarraituko du. Solaskideak gazteleraz erantzuten badu, langileak euskaraz jarraituko du solaskideak ondo hartzen duela (modu nabarmenean) eta ulertzen duela ikusiz gero, bestela gaztelerara pasatuko da. Ez zaio inolako deserosotasunik eragingo solaskideari, eta errespetu osoz tratatuko da.

3.- Udal langileek ezingo diote herritarrari hizkuntza batean edo bestean jarduteko eskatu. Beraz, udal langileak euskaraz ez badaki, euskaraz dakien bati deitu beharko dio herritar horri arreta egiteko.

b.- Erakundeekin (beste administrazioekin)

1.- Ahozko harreman guztietan (telefonozkoak zein aurrez aurrekoak) Udaleko langileek euskaraz egingo dute lehen hitza.

2.- Langilea euskaraz jarraitzen ahaleginduko da, baldin eta solaskidea euskalduna bada.

3.- Batzarretan ahalegina egingo da eurotako gehienak euskaraz egiteko. Ezinezkoa den kasuetan, ondokoak euskaraz emango dira: agurra, aztergaien eta pertsonen aurkezpena eta bukaerako laburpena.

5.1.2.- Barruko lanean

- Langileen arteko harremanetan: Euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izateko bideak urratuko dira. Adostasuna tarteko, ahozko jardunak apurka-apurka euskaraz bideratuko dira.

- Batzarrak: Amankomuneko hizkuntza euskara izatea bultzatuko da. Beraz, batzarretan, mezua denei heltzen zaiela eta denek parte hartzeko aukera dutela bermatuta, euskararen erabilera lehenetsiko da (idatzizko dokumentazioa balia daiteke zalantza kasuetarako).

5.2.- Idatzizko komunikazioa

5.2.1.- Kanporako lanean

a.- Herritarrekin

1.- Udalak berak beratara igortzen dituen testuak elebietan edo euskaraz egingo ditu.

2.- Herritar batek egindako eskari, galdera edo dena delakoaren ondoriozkoak diren erantzunak elebietan edo euskaraz egingo dira.

Administratuaren hasierako harremana gazteleraz izan bada, elebietan erantzungo zaio.

Hasierako harreman hori euskaraz izan bada, euskara hutsean erantzungo zaio.

3.- Hala ere, hartzaileak beti izango du aukera administrazioarekiko harremanetarako hizkuntza aukeratu ahal izateko.

4.- Idazkien diseinua Udalak ezarrita dituan jarraibideen arabera egingo da. Elebietan dauden testu horietan euskarak nabarmenduta joan beharko du, Udalak ezarrita dituen irizpideak erabilita (letra tipoa, kokapena…).

5.- Herritar guztientzat egiten diren idazki administratiboak elebietan izango dira.

6.- * Berdin jokatuko da talde eta elkarteekin ere. Hori bai, elkarte eta taldeentzako idazkiak euskara hutsean izan daitezke Udalak egiaztatuta badu taldeak ulertuko duela.

b.- Erakundeekin (beste administrazioekin)

Erakundeekiko harremana elebietan edo euskaraz izango da. Harreman horiek euskara hutsezkoak izan litezkeen kasuetan, erakunde horiekin adostu eta hala bideratuko dira apurka-apurka.

5.2.2.- Barruko lanean

a.- Langileen arteko harremanetan: Euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izateko bideak urratuko dira. Idatzizko jardunak apurka-apurka euskaraz bideratuko dira, elebitasunari derrigorrean eutsi behar ez zaion kasuetan behintzat.

b.- Batzarrak: Amankomuneko hizkuntza euskara izatea bultzatuko da (hizkuntza gutxituaren aldeko apustua eginda). Batzarretan, mezua denei heltzen zaiela eta denek parte hartzeko aukera dutela bermatuta, euskararen erabilera lehenetsiko da.

c.- Batzar-deiak euskaraz izango dira, dagokien langileek hizkuntza eskakizuna ezarrita daukaten kasu guztietan.

5.3.- Euskarazko testu idatziak egiteko bideak

5.3.1.- Euskaraz sortzea

a.- Udalak euskaraz funtzionatu ahal izateko, testu elebidunak edo euskara hutsezkoak sortu behar dira.

b.- Beraz, euskaraz sortzeari lehentasuna emango zaio. Horretarako, hori bai, langileei euren ezagupenetara eta lanera egokitutako trebakuntza eskainiko zaie (teknika ezberdinak landuko dira eurekin: testu elebidunak sortzeko irizpideak ematea, korredakzioa…)

c.- Hori posible izan dadin, beharrezkoa da:

1.- Langileek hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izatea
2.- Langileek hizkuntza-prestakuntzako ikastaroak jasota izatea
3.- Langileek Trebakuntza-saioak jasotzea
4.- Udalak Idazki-eredu normalizatu egokiak edukitzea

d.- Hori guztia etengabeko lana izango da eta sekula ez da egongo betiko gauzatuta.

e.- Dena den, eredu egokiak badaude eta langileak prest sentitzen badira, prozesu hori edozein momentutan abia daiteke, beti ere, kontuan izanda zuzenketa-zerbitzua eskaintzen dela.

5.3.2.- Itzultzea

Administrazioko langileak elebidunak izanda, ez da zentzuzko euskararen erabilera itzulpen hutsaren bidez bermatzea, aurreko puntuan esan bezala, euskaraz sortu behar da.

Itzulpenak horretara heldu arteko tresna lagungarria baino ez du izan behar.

Egokitze-fase luze honetan hauek dira barruko lanerako itzulpenetarako irizpideak:

Kanpoko erabilera duten testu ertain eta luzeetan eta maila tekniko edota sintaktiko altu edo konplexuko idazkiak itzuliko dira.

Maila tekniko altu edo esparru berezietakoak izan arren, kanpoko erabilerako testu laburretan, plantilletan betetzekoetan eta antzekoetan ez da itzulpen zerbitzua erabiliko, zuzentzekoa baino. Honetan ondo uztartuta egon beharko dute itzulpen zerbitzuko langileen eta trebatzaileen lanek, une bakoitzean langile bakoitzari noraino eska dakiokeen zehatz jakiteko.

5.4.- Langileen prestakuntza

5.4.1.- Laneko prestakuntza

Laneko prestakuntza bide bitatik etortzen da eta bietan egingo da lan:

a.- Batetik, kanpotik egindako eskaintzari dagokionez, lehenetsi egingo dira euskaraz dauden ikastaroetan parte hartzeko eskariak.

b.- Bestetik, barrutik egindako eskaintzari dagokionez, eskaintza handitu egingo da, batez ere, praktikoa eta egunerokoa den prestakuntzari dagokiona (informatika, legeen aldaketa…).

5.4.2.- Euskararen inguruko prestakuntza

a.- Era bitako prestakuntza eskainiko da:

- Batetik, HABEk eskaintzen dituen ikastaroak (IVAPen bidez edo, bestela, Udalaren beraren bidez).
- Bestetik, Trebakuntza-saioak.

b.- Euskararen inguruko ezagupena hobetu behar duten langileek lehenengo horretara jo beharko dute. Hau da, gramatika orokorra, zuzentasuna…

c.- Trebakuntza-saioak administrazioko testu idatzi zein ahozkoetan oinarrituko dira, euskaraz lan egitean sortzen diren zalantzak argitzeko eta lan hori errazteko. Beraz, idazki-ereduak (eta ahozko formulak) izango dira trebakuntzetako tresna nagusia.

d.- Ohiko ikastaroetarako ordu-poltsa bat ezarriko du Udalak (lan ordutegi barrukoa) eta langileek egindako eskariak irizpide batzuen arabera aztertu ostean (baremazio bat egingo da), erabakiko da nori eman eta zer.

e.- Irizpide horiek batzorde misto batek ezarriko ditu. Batzorde horretan ordezkari politikoak, Giza-baliabideen Saileko teknikaria, langileen ordezkariak eta Euskera Saileko teknikaria egongo dira.

f.- Trebakuntza-saioak ere batzorde horretan adostu beharko dira.

5.5.- Laneko tresneria

5.5.1.- Idazki-eredu normalizatuak: Idazki horiek oinarrizkoak dira eta etengabe egokitzen joan beharko dute. Euron ereduak diseinatzen eta zehazten, ondokoek hartuko dute parte: sailak berak (dagokionak), Baliabide Orokorren sailak eta Euskera sailak.

5.5.2.- Lanerako programa eta aplikazio informatikoak:

Gero eta garrantzi handiagoa dute udal langileen eguneroko lanean, ezinbestekoa dira. Horrenbestez,

a.- Beharrezkoa da baliabide informatiko estandarrak euskaraz erabiltzen ohitzea eta gazteleraz dauden programa bereziak apurka-apurka euskaraz jartzea.
b.- Euskarazko bertsioak izango dira besterik adierazi ezean zabalduko direnak.
c.- Euskarazko produkzioa indartzeko baliagarriak diren tresnen zabalkundea egingo da.
d.- Euskarazko bertsioak txukunak eta erabilgarriak izango dira, ez itzulpen desegoki hutsak eta programa berriak elebietan egon beharko dute instalatzen direnerako, eta ez gero itzuli, horrek gazteleraz erabiltzeko ohitura sortzen du eta.

e.-Formazio-ikastaroak euskaraz eskainiko dira edo, behintzat, elebietan. Ez da-eta nahikoa programak itzultze hutsa, langileak ohitu egin behar dira programa horiek euskaraz erabiltzen.

5.6.- Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak

a.- Udalaren irudiaren adierazle diren elementuak euskara egokian jarriko dira, bai idatzizkoak bai berbazkoak. Batez ere, begi bistakoak edo denok entzutekoak direnak: eraikinetako eta bulegoetako errotulu nagusiak, zigiluak, fax-orriak, erantzungailu automatikoak …

b.- Bulegoetan dauden fitxategi, artxibadore eta, orokorrean, eguneroko lanarekin lotutako elementuak ere elebietan edo euskara hutsean jarri beharko dira.

c.- Hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (erantzungailu automatikoetakoak, bozgorailu bidezkoak…) euskaraz edota euskaraz eta gaztelaniaz (hurrenkera horretan) emango dira.

5.7.- Kanporako komunikazioa

5.7.1.- Argitalpenak, iragarkiak

a.- Euskararen erabilera bermatu egingo da kasu guztietan. Eta ahalegina egingo da elebitasuna gainditzeko, horretarako aukera dagoenean; hau da, euskara hutsezko testuen kopurua handitzeko ahalegina egingo da.

b.- Euskarazko komunikabideetan, idatzizkoetan eta ikus-entzunezkoetan, gehiago publikatuko da; eta elebietan funtzionatzen dutenetan, udalerriari buruzko informazioa euskaraz gehiago argitaratzeko eskatuko zaie arduradunei.

5.7.2.- Prentsa-oharrak, kanpainak eta ekitaldi publikoak

a.- Udalaren kargu politiko eta enplegatuek euskararen erabilera bermatuko dute ekitaldietan. Eta kasua berezia ez bada entzuleen edo gaiaren ezaugarriengatik, euskararen erabilera lehenetsiko dute.

b.- Era berean, Udalak ahal den guztietan halako ekitaldiak bideratzeko izendatuko dituenak hizkuntza-gaitasun egokidunak izan daitezen zainduko du.

5.7.3.- Ingurune digitala

a.- Udalak kudeatzen dituen tresna digitaletan elebitasun osoa bermatuko da egituretan eta oinarrizko elementuetan. Aldakorrak diren informazio eta agirietan elebitasuna jagoteaz gain, euskararen erabilera lehenetsiko da.

b.- Informazio edo komunikazio tresna digital guztietan, berez lehen aukera (kontrakorik adierazi ezean) euskara izango da, erabiltzailearen esku geratuko da hizkuntza aldatzea.

c.- Inguru digitala oso aldakorra denez, ahalegin berezia egin beharko da adierazitako elebitasun hori jagoteaz gain, kalitatea ere zaintzeko.

5.8.- Ikastaroak eta jardunaldiak

5.8.1.- Udalak herritarrei eskaintzen dizkien urteroko ikastaro eta hezkuntza-zerbitzuetan ondoko irizpideak bete beharko dira:

a.- Ikasleekiko ahozko harreman guztiak euskaraz izango dira, irakasle jardunaren barruan. Ikasleren batek ulertzen ez badu, berari propio emango zaizkio beharrezko azalpenak gaztelaniaz.

b.- Talde saioetan udal langileek euskaraz jardungo dute ikasleekin.

c.- Udal langileen barruko lana eta erlazioak eskola-ordutegian uskaraz izango dira, adin txikikoen zein gazteekin horrek daukan erabateko eragina kontuan izanda.

Kanporako harremanetan 1 eta 2 ataletan zehaztutakoa beteko da.

Udalak herritarrei eskaintzen dizkien ikastaro puntualetan eta jardunaldietan euskararen erabilera bermatuko da, eta euskara hutsez ematen dituen ikastaroen eskaintza zabaldu egingo da.

- Ikastaro horiek emateko hirugarren bat kontratatzen denean, Udalak proiektu eta aurrekontu eskaria (baita kontratua ere) euskaraz egingo ditu eta argi adierazi beharko dio enpresa horri zeintzuk diren kasu bakoitzean ikastaroak bete beharreko hizkuntza-irizpideak.

5.9.- Kontratazio administratiboa

- Kontratuen baldintza administratibo eta teknikoen agiriak elebietan ateratzera joko da, baita enpresekiko dokumentazio publiko guztia ere: iragarkiak, gonbidapenak...

- Kontratu mota bi bereiztuko dira:

a) Herritarrekiko zuzeneko harremanik sortzen ez dutenak.

b) Herritarrekiko zuzeneko harremana sortzen dutenak.

Lehenengo kasuan, Baldintza Administratiboen agirian ezarriko dira hizkuntza irizpide orokorrak, batez ere, idatzizko dokumentazioari eta Udaleko langileekiko harremanei

lotuak. Bigarren kasuan, ostera, Baldintza Administratiboen agirian ezarritakoaz gain, Baldintza Teknikoetan ondokoak zehaztu beharko dira:

- Herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuko da, eta euskara lehenetsi egingo da komunikazioan (are gehiago adingabekoei zuzendutako zerbitzuetan).

- Herritarrentzako inprimaki, ohar eta jakinarazpenak euskaraz eta gazteleraz (euskarari lehentasuna emanda) aterako dira.

- Agerpen publikoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira.

*Kontratu bakoitzean egokitu egin beharko dira hizkuntza irizpideak kontratuaren xede den zerbitzuaren ezaugarrietara.

- Kontratatutako enpresak geroko lanetarako erabilgarriak izango diren agiriak sortzen baditu, agiri horiek guztiak elebietan edo euskaraz egon beharko dute, gerora, itzulpenera jo beharrik egon ez dadin. Euskera Sailak lan horien hizkuntza-kalitatea konprobatuko du.

- Hizkuntza irizpideak ez betetzea kontratua eteteko arrazoi nahikoa izango da.

5.10.- Erregistroa

Udaleko erregistroan sartzen diren agiriak era honetara erregistratuko dira: euskaraz dagoenean euskaraz, gaztelaniaz dagoenean gaztelaniaz eta elebietan denean euskaraz.

Herritarraren hizkuntza hautapena errespetatzeko, behar den guztietan inskripzioaren itzulpena ziurtatuko da.

5.11.- Diru-laguntzak (ikusi Euskeraren Ordenantza)

Diru-laguntza deialdietan ezarrita daude aspalditik hizkuntza irizpideak. Baina badira oraindik hobetu litezkeen puntu batzuk: Batetik, deialdian agertzen diren irizpide horiek berraztertu egin behar dira, beharrizan eta egoera berriei hobeto egokitzeko eta ikusi diren arazoei aurre egiteko. Eta bestetik, ezarrita egotea garrantzitsua den arren, ezinbestekoa da euron jarraipenean ahalegin handiagoa egitea eta, beharrezkoa denean, zuzenketa neurriak ezartzea..

5.12.- Udal instalazioen erabileraren lagapena (ikusi Euskararen Ordenantza)

Udalarenak diren instalazioak, lokalak, plazak, bide publikoak eta materialak erabili nahi dituzten erakunde eta enpresa guztiek bete egin beharko dituzte dagokien baimenean ezarritako hizkuntza irizpide eta arau guztiak, eta Udalak irizpide horiei buruz informatu beharko ditu.